

# B

BARREN

# Etorkizuna oinetan

Lorea Santiago, antxintxikaria





**IKASI INGELESA DIBERTITUZ**  
benetan!!



**IKASFUN!!!**

UDAKO PROGRAMA

**IKASI INGELESA DIBERTITUZ**

**benetan!!**

- ♦ Ingelesa ikasteko modurik dibertigarriena.
- ♦ Programa trinkoa.
- ♦ Dinamikoa eta praktikoa.
- ♦ Ingelesez komunikatzen ikasiko duzu.
- ♦ Talde eta lan-metodo ugari.
- ♦ Adin taldeak: 6-8, 9-11, 12-14 urte.

Borroto pasealekua, 18 AIETE  
20009 DONOSTIA  
Tel: 943 31 33 77  
E-posta: donosti@kensington-sl.es

San Inazio kalea, 4  
20870 ELGOIBAR  
Tel: 943 74 02 36 - Faxe: 943 74 35 12  
E-posta: elgoibar@kensington-sl.es



**0 Km-aren jaia**

**6.500€tik aurrera**

**Eskaintza hoberenak:**

- 0 Km-etan
- Ia berrietan
- Direkzio autoetan

**Giauto**  
Kontzesionario  
ofizialak

**GIAUTO OPEL**  
ELGOIBAR · EIBAR · BERGARA  
ARRABATE · OLABERRIA · ANOETA  
Tel. 902 345 123 Salmentak  
Tel. 902 345 125 Talera  
www.giauto.es  
clientes@giauto.es

**GIAUTO CHEVROLET**  
EIBAR · OLABERRIA  
Tel. 902 345 225  
www.red-chevrolet.com  
clientes@giauto.es

**GIAUTO SAAB**  
BERGARA  
Tel. 943 763 347  
www.giauto.redsaab.com  
clientes@giauto.es

## Marrubizko belusa ziape liofilizatu eta txitxi-geléarekin

Sarri ikusten ditugu telebistan sasi-tertulianoak nahi dutena esaten, inongo ezagutza eta oinarri arrazionalik gabe, gai guztien inguruan. Politika, sukaldaritzara... ez dute mugarik.

Baita pil-pilean dagoen gai honen inguruan ere: Santamaria vs. Adriá. Aurrenekoak *Madrid Fusión* ospakizunean erein zuen lehen hazia. Sukaldaritzara berriazaleari osasunarentzat kaltegarria izatea leporatu zion. Telebistako "kazetari" batzuentzat hala omen...

Lehenengoak jakien zapore eta jatorri naturala mantentzearen alde egiten du; besteak berriz, bere erokeria sana dela medio, espainiar sukaldaritzara goren era eraman du ahoskagaitzak diren platerak sortuz. Izatez, ez da lan erraza bere jatetxean karta ulerzea.

Arrotza zaiguna kaltegarritzat jotzea ohitura peloa da. Sukaldaritzan, esate baterako: *metilzelulosa*. Eliekagaintzan oso erabilia den osagaia, batez ere, aurreprestatutako plateretan eta izoztutakoetan. Honi esker ez da pizetako gaztaren elastikotasuna galtzen, adibidez. Bestalde, *liofofilizazioa* zer ote? Pozoia? 50. hamarkadan prozesu industrialetarako erabiltzen hasi zen jakien mantentze prozesu bat da. Jatorria inken kulturaren dauka. Gauean jakiak izozten uz-

ten zituzten eta, goizeko argi printzak eta presio atmosferiko baxua medio, produktuak zeukan ura guztiz sublimatzen zen, produktuaren iraungitze data luzatuz.

Ga(i)tz da ideia garbiak on-doriotzatzea. Batzuk arre, besteak iso... Nori kasu egin? Euskaldunon kultura gastronomikoa handia da, sagardotegietatik hasita puntako sukaldarietaraino, bagara nahiko aditu gai haue-tan eta guk herritar xumeok, *pariok*, metilzelulosadun piz-zak eta liofilizatutako kafe azkarrak kontsumitzen ditugunok arazo larriagoak dauzkagu. Nik garbi ikusten dut: liofiliza daitezela guztiak!

Joanes Rodriguez



"Nire txanda" atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaituz gurekin harremanetan: 943 74 41 12 edo barren@elgoibarkoizarra.com

.....  
**"Nori kasu egin? Euskaldunon kultura gastronomikoa handia da, eta liofilizatutako kafe azkarra kontsumitzen dugunok arazoa larriak ditugu"**

# ZABALDUZ,

## ANJEL UGARTEBURUREN BLOGA MARTXAN DA



**Egin  
klik  
eta  
ikusiko  
duzu**

[www.elgoiBARREN.net](http://www.elgoiBARREN.net)



# IDOIA ALVAREZ

AGENDA 21eko TEKNIKARIA

**“Ingurumenaren  
kontzientziazioa  
berreskuratzen  
ari gara”**



Elgoibarko Udalean 2005ko otsailean hasi zen lanean Idoia Alvarez Agenda 21eko teknikari debarrak. Urtebeteko etelaldiaren ostean, iazko urritik ari da Elgoibarko Iraunkortasunerako Ekintza Plana martxan jartzen eta koordinatzen. Alor mordoia ditu estrategia horrek: energia, kirola, baliabide naturalak, hondakinak... Hortaz, Udaleko gainontzeko sailen lana ere kontuan hartu beharko du. Bere ustez, herrian eta gizartean oro har jendea gero eta kontzientziatuagoa dago ingurumenaren arloan. Orain dela aste batzuetako Pleno Txikia da horren adierazle nagusia. Herriko hiru ikastetxeetako gaztetxoek euren kezkak agertzeaz gain, proposamen zehatzak egin zituzten ingurumen-kalitatea hobetzeko. Udalak ere hogeita ekintza inguru prestatu ditu energiaren kontsumoa gutxitu dezaten herritarrek.

## **Zein helburu dituzu?**

Garapen iraunkorrak duen garrantziaz pixkanaka-pixkanaka herritarrek kontzientzia-tu eta gizartearen eguneroko bizitzako zenbait ohitura aldatu, besteak beste: garraio publikoak sarriago erabiltzea, natura zaintzea, gauzak berrerabiliz hondakin gutxiago sortaraztea...

## **Modan dago, oro har, gure gaur egungo gizartearen ingurumenaren inguruan hitz egitea?**

Gehiago hitz egiten dela nabaria da, baina ez nuke esango moda kontuagatik denik, kontzientziazioagatik baizik. Orain dela gutxira arte herri aurreratuetakook azken hamarkadetan naturari egin dizkiogun kalteaz ez gara ohartu, edo ez dugu konturatu nahi izan. Orain, berriz, gure eguneroko bizitzan egiten ditugun jarduerak burutzerakoan lehen izan ez dugun kontzientzia berreskuratzen ari gara, bai gizarte bai ekonomia arloan. Beraz normala da komunikabideetan ingurumenari buruz gehiago hitz egitea.

## **Enpresek serio hartzen dute ingurumena edo komunikabideei begira aurpegia garbitzeko egiten dute askok?**

Gero eta ingurumen kontzientzia maila handiagoa dago gizartearen, baita enpresetan ere. Gainera gaur egun, Ingurumen legeak enpresei ezartzen dizkien neurriak nahiko zorrotzak dira.

**“Debarreneko herrien artean, Elgoibarrek sortzen du energia berriztagarri gehien”**

Orain dela gutxi udal plenoan haurrek hartu zuten hitza. Ume askok sentsibilizazio kanpainaz hitz egin zuten. Beharrezkoak edo eraginkorrak dira?

Arlo batzuekin kontzientziazteko oraindik beharrezkoak dira, adibidez, garraio publikoak sarriago erabiltzeko. Eraginkorrak izatea baldintza askoren menpe dago.

## **Haurrei behar bezalako heziketa ematea ezinbestekoa da. Debegesak aurten ere liburuxkak bidaliko dizkie?**

laz atera zuen Debegesak Deba ibaiari bu-

ruzko aldezkar berezia eta eskualdeko etxe guztietan banatu zen. Agian Debegesak aurten ere ibaiari buruzko bigarren liburuxka aterako du etxeetan banatzeko, baina oraindik ez dakite seguru.

## **Ume asko kezkatuta zeuden Deba ibaiaren inguruan. Hobera doa nabarmen?**

Elgoibarko depuradora martxan jarri denetik bai, eta oraindik gehiago hobetuko da Eibar, Ermua eta Soraluzeko ur-zikinak ere bertan tratatuko direlako. Udalaren kezka ibaiarekiko ere nabarmena da, Eskualdeko Plan Estrategikoak jasotzen duen bezala, Deba Ibaiaren ingurumena eta birsorketa sozioekonomikoa sustatuko baita.

## **Deba ibaia garbitzea Jaurlaritzaren ardura da, baina Udalak ingurunea (boltsak kendu...) bakarrik zaintzea zilegi da?**

Udalak ez du garbiketa lanetan diharduen langilerik. Mankomunitateko langileak kaleen garbiketaz eta edukiontzien hondakinak jasotzeaz arduratzen dira. Beraz, Udalak ez du giza-baliabiderik ibai eta erreken garbiketarako, beraz zikin daudenean Eusko Jaurlaritzari eskatu diezaioke garbitzeko. Baina berez, euri jasa handiak direnean salbu, horrelakorik ez litzateke gertatu behar; hau da, garbitzerakoan guk botatuko gauzak baitira ibaiatik ateratzen ditugun hondakinak. Proiektu bat aurrera eramateko momentu honetan harremanetan daude eskualdeko Udalak, Debegesa eta beste erakundeak.

## **Eguzki panelak jartzea oso garestia omen da: 35.000 euroko gastua panel bakoitzeko. Gero erraz amortizatzen dira, ezta?**

Eguzki panel fotovoltaikoak, energia sortzen duten panelak, 8-10 urtetan amortizatzen dira, eta hogeitaz inguru irauten dute gutxi gorabehera. Bestalde, Energiaren Euskadiko Erakundeak diru-laguntzak ematen dizkio jartzen dituenari. Baina behar duten azalera, eguzkiarekiko norabidea eta jarri nahi diren zoruaren ezaugarriak kontuan harturik, jartzea ez da izaten askotan hain erraza.

## **Eztabaida dago energia nuklearraren inguruan mundu osoan. Horren aldekoa zara?**

Gainontzeko energia mota ez berriztagarriak bezala, hobe izango litzateke energia nuklearrak ez erabiltzea, baina gure eguneroko bizitzaren eta teknologiaren beharrak energia mota honen portzentaia txiki bat erabiltzera behartzen gaitu.

## **Elgoibar omen da Debarreneko herrien artean energia gehien sortzen duena. Besteak ere makal dabilta?**

Elgoibarrek sortzen du energia berriztagarri gehien, Deba ibaian daudelako instalazio minihidraulikoak. Eskualdeko beste herrietatik Deba ibaia ez da pasatzen, edo ez daude hainbeste salto. Beraz era honetako energia Elgoibarrek eta Soraluzek bakarrik lortzen dute. Eskualdeko beste herrietan (Eibarren, Mallabian eta Soraluzen) eguzki-plakak jarriko dituzte laster energia berriztagarrien bidez sortutako energia kopuru handiagoa sortzeko.

**“Elgoibarko Udalak ez du giza-baliabiderik ibaia eta erreken garbiketarako”**

## **Alde zaharreen energia eraginkorra erabiltzeko ikerketa egiten ari da auditoria bat. Proiektu horren ardura duzu?**

Argiztapen publikoak energia eta diru asko eskatzen du. Elgoibarko Udalak horren egoera hobetzea nahi zuen eta ikerketa bat egitea erabaki zuen. Horretarako, Gipuzkoako Foru Aldundiko diru laguntzarekin, energia eraginkortasunaren ikuspegitik alde zaharreko argitazpenaren azterketa egin dute. Energia alferrik ez galtzea, eta bide batez klima aldaketak sortarazten duen CO2 isurketak gutxitzea da ikerketaren helburua.

## **Energia aurrezteko plana dago, orduan, herrian?**

Ekintza planeko zazpigarren lerro estrategia-koa energiaren kontsumoa optimizatzea eta gutxitzeari buruz da. Helburu hori lortzeko, martxan jarri beharreko hogeitaz bat ekintza zehaztuta daude. Udalak ahal duen neurrian, aurrera eramaten saiatu behar den argiztapen publikoko ikerketa, adibidez, hogeitaz bat horien arteko neurri bat da.

# Amalurra

## Baserrietako kontu zaharrak interneten

**E**lgoibarko baserrien historiari buruz gehiago jakiteko aukera ematen du orain Internetek. Herriko *Kronika zaharrak* Interneten jarri dituzte, edozeinen eskura (<http://amarauna.org/elgoibar/>). 1930etik 1936era arteko kronika horiek baserriaren munduari leku zabala eskaintzen diote, beste alor askotako gorabeherak ere jaso arren.

Nekazaritzako atalari erreparatu, hainbat elgoibartarrek bere familiaren baserriaren gaineko kontu zahar gehiago jakin dezakete orain. Izan ere, hainbat bitxikeria eta datu konkretu agertzen dira.

### Baserrien zerrenda

Alde batetik, Elgoibarko 110 baserri eta basetxeren zerrenda jaso dute. Baserriotatik batzuk desagertuta edo jausita daude, Kartzatza edo Auztakon esate baterako. Zerrendan azaltzen diren asko eta asko bizirik daude (Aldapa, Akei, Galbuso, Juanategi, Belaustegi, San Roke eta abar).

Baserri bakoitzaren izenean klik eginez gero, baserri horrekin zerikusia duen albistea ageri da. Gehientsuenetan jaiotza, heriotza eta ezkontzen berri ematen da. Esate baterako: "Alonso Elustondo'tar Jagoba eta bere

emaste Juaristi'tar Andone *Jauregi* basetxe-kuak, semetxo eder bat izan dute. Zorionak". Hala ere, beste era bateko albiste eta gorabeherak ere azaltzen dira.

Bestetik, *gizarte* ataleko *nekazaritza* arloan klik eginez gero, hainbat albiste ageri dira.

Nekazariak harakinekin haserre zeudeneko pasartea irakurri dezakegu batean edo kontribuzioa ordaintzeko iragarkia beste batean.

Kronikarik gehienak Gillelma Gorostizak idatzi zituen, *Aixerixak*, sasoi hartako euskara garbizalean.



## Sasoiari sasoikoa

### Gereziak


Udaberri amaieran eta udan izaten dira gereziak geurean. Greziarren eta erromatarren garaietatik kontsumitzen dira Europan. Mila barietate baino gehiagoko daude munduan, baina bi multzo nagusi daude: garratzak eta gozoak.

Adituen arabera, pisutsuak aukeratzeko komeni da. Horrez gain, gorri ilunak edo beltzak hartzeko aholkatzen dute. Normalean, gerezi ilunek zapora hobe izaten dute. Ez garbitu eta ez

estali hozkailuan sartzean, luzaroago irauteko.

Hainbat bitamina eta mineral izateaz gain, hainbat gaixotasunetatik babesten gaituzten osagaiak ere badituzte.

Sasoi honetan beste produktu hauek ere badaude azokan: baba beltza, ilarra, tipula, patata, kogolloak, letxuga, udaberriko azak, apioa berakatz freskoak, borraja, azelgak, tipulina espinakak, porruak eta erremolatxa.



**Esteban Egia**

**Mugerza baserrikoa**



**Joan zen domekan, Sanmigeldarren egunean, omenaldia egin zioten Esteban Egiri, auzolanean maixu izan delako. Frontoia, elkarte, bolatokia eta inguru guztia txukun lagatzea lortu zuten auzolanen bidez. Hala ere, meritua, berea ez ezik, besteena ere badela uste du: azken batean, auzo guztiak parte hartu zuten, eta bakoitzak ahal zuten neurrian ingurua berritzeko lana egin zuten.**

## “Hemen denak inplikatu ziren”

### **Omenaldia egin dizute. Zer sentitu duzu?**

Nik ez nuen espero. Sorpresa izan da. Opariz betea izaten da... Beti ematen du emozioa horrek, batez ere mikrofonoaren aurrera arri-matzen zarenean.

### **Auzolanean ibiltzeagatik eskerrak eman dizkizute. Hasieran, behintzat, ez zen erraza izango hori guztia marbxan jartzea...**

Soziedadea ireki zen 1975. urtean. Lehen eskola zegoen, abandonatuta, itoginekin-eta. Geuk konpontzea pentsatu genuen. Bixente Lazkanok egin zuen obra hau. Gero guri tokatu zitzaigun geurea, pixkat laguntzea. Asadore txiki bat egin genuen atzean eta orduan izan zen hasiera.

### **Zer lan egin zenituzten auzolanean?**

Ondoren bolatokia egin genuen. Gero lokal bat atera genuen, jaietarako barra eta urtean zehar soziedaderako lokal bat izateko. Horretarako abuztua aprobetxatzen genuen. Ondoren elizaren erreteila etorri zen, konpondu egin behar zen-eta.

### **Lan handia izan zen?**

Ulazia etorri zen Udaletik, egur batzuk berriak sartzeko esanez, zaharra ez zela ondo geratuko. Halako batean zera esan zuten: “Zuek konprometitzen bazarete egur horiek moldura batekin ipintzen, ni enkargatuko naiz egurra ekartzeaz”. Pentsatu genuen Bixente Lazkanok aterako ziola forma. Gero pasatu zen egurrak luzeak zirela, eta ez zirela sartzeko ezin zela egin. Azkenean auzolana heldu zen

eta motozerrarekin atera behar izan genuen moldura hori *echando leches*, egun batean! Gustora. Azkenean erreteila amaitu genuen.

### **Udalarekin nork egiten zituen gestioak?**

Erreteila amaitzeko, auzoko alkateak Udaltxean ibili behar izaten du, gestioak egiten, eta gure jefea Ulazia zen. Guk makina bat lan egin genuen eta gure meritua izango genuen, baina Ulaziak balore ederra eduki zuen guri hori dena lagatzeko egiten. Zeozer pasatuz gero, arduraduna bera zen! Atzeko lokala egin genuenean ere, geuk egin genuen, Ulaziari ezer esan gabe, oporretan zegoen-eta. Auzoko alkatea gero, Javier Arrizabalaga izan da, eta bera izan da gestioetarako aurpegia eman duena. Denak inplikatzeko dira azkenean.

## “Hemen maixurik ez zegoen. Ahal zuenak ahal zuena egiten zuen”

### **Frontoia ere zuek egindakoa da?**

Auzoak terrenoa erosi genuen. Lehenengo azpia egin eta gora. Geuk altxatu genuen ho-

ri dena. Frontisaren atzean asadorea egin genuen, eta aldatzeko dutxak eta komunak.

### **Eliza barruan konponketarik egin zenuten?**

Zoluan ohola zegoen, eta dena apurtu genuen eta terrazoa sartu genuen. Itoginekin dena zegoen hondatuta.

### **Auzolanean maixu izan zarela esaten dute...**

Maixu izenak azaldu dira, izen haundiak. Baina hemen maixurik ez zegoen. Ahal zuenak ahal zuena egiten zuten. Auzolana guk egin genuen, baina andreak hemen inplikatu egin ziren bazkariak ipintzen. Azkenean hemen denok inplikatu ziren, katea izaten delako. Hain diru gutxi samarrekin geuk egiten genuen dena. Meritua denena da.

### **Zelako bizipoza lanak amaitutakoan, ezta?**

Bolatokia egiten gauez ibiltzen ginen askotan. Etorri lanetik etxera, afaldu eta zortziretan elkartu eta aspertu arte. Hurrengo egunean berriz. Amaitutakoan, pozik. Gero kanpotik datozenek “ederki geratu dok” esaten dute.

### **Mantenimendua eskatuko du, ezta?**

Atzeko asadore berria egitean, txikia bota egin genuen. Urte batzuk pasatu dira eta orain dela bi erreformatu egin genuen. Orain ez duzu pentsatzen, baina gero berriztu beharra dago. Mantenimenduz alde batera lagata, gaur egunean ez dakit obra egingo litzatekeen. Jendeak lehengo aldean ihes egin dio lanari. Abuztua etortzen denean esan etortzeko hona lanera. Asko aldatu da.



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com).

### Eskerrik asko

Elgoibar Bi Erroberatan ekitaldiaren antolatzaileek eskerrak eman nahi dizkizuegu parte hartu zenuten ume eta guraso guztiei. Bestean laguntza ere bihotzez estimatzen dizuegu: Elgoibar-ko ikastetxeak, Iñaki Beristain, Glass control, Exclusivas Karmelo Iriondo, Nava inprenta, Elgoibarko Txirrindulari Elkarteak, Udaltzaingoa, DYA, BARREN eta Jabi Leon eta Aitor Zabala kazetariak.

Eskerrik asko, eta ea datorren urtean (zuen laguntzarekin) aurtengo marka altua hausten dugun! Ez dugu erraza izango!

Kalamua Herri Eskolako  
Guraso Elkarteak

### ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENen edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko dituhitaez:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakunde zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gazteleraz datorren eskutitz argitaratuko.

# Barren

Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR  
 ☎ 943 74 41 12  
 Faxa: ☎ 943 74 37 04  
 E-posta: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)  
 Publizitatea: ☎ 943 74 37 04  
 E-posta: [barren.publi@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.com)

Argitaratzailea:







Abel  
Irizar

Lagun batek  
25 urtean segidan  
egin du maratonia. Poliki  
eta kronometroari begiratu gabe

amaitu ditu denak, baina hogeita bost urtean iraun du bere konpromisoak, hutsik egin gabe, fin, zorrotz eta leial. Balio handiko marka da, nire ustez.

Gaur egungo gizartean, aldiz, ez du askorik balio. Segituan botako diote aurpegira: *Eta, zenbat denboran egin duzu? Zein izan da markarik onena?* Eta nire lagunari birrindu egingo diote 25 urteetako izerdiz eraikitako gaztelua.

Gizarteak jasaten duen gaitzaren ispilu da hori: behin maratonia oso bizkor egitea nahikoa da komunikabideen eta gizartearen errekonozimendua jasotzeko. Konstantzia, ordea, ez da baloratzen. Balioa galdu du.

### “Alberto, telebista eta gimnasioak bihurtu al dira gizartearen opio?”

Denok bizi gara estresatuta, eta nahikoa daukagu gizarteak jarri dizkigun erronkak gainditzen (hipoteka, lana, kontsumoa, modernitate...). Bestalde, indibidualismoa da nagusi. Gizartearen aurrean geure burua *superatzea* dugu helburu. Lorpen pertsonaletara bideratzen ditugu bizitzak eta indarrak, lorpen kolektiboak alde batera utzita. Norberak asko edukitzea da inportantea, eta ez denontzako justizia eta eskubideak lortzea.

“*Garenaren eta izan nahi dugunaren artean bizi behar dugu*” kantatu zuen behin Amaia Agirrek bertsotan. Egia da. Baina, gaur egun “*Garenaren eta gizarteak izateko eskatzen dugunaren artean bizi gara*” esan beharko genuke. Alberto, telebista eta gimnasioak bihurtu al dira gizartearen opio?



Alberto  
Agirreazaldeggi

Lehen, erlijioa zen gizakiaren opioa. Gero politika igo genuen aldareetara santuak eta kristoak baztertuz. Politikarekin ere nazkatu egin gara (edo nazkarazi gaituzte) eta orain gizakion arteko norgehiagokan gabiltza takian potian. Kirola egitea gehiegi sakralizatu dugu. Lehen ere egiten zen baina ez gaurko eran.

Ez da nahikoa kirola egitea. Gizarteak adierazi, erakutsi egin behar du egiten dela. Eta azken modako arropekin bada, hobe. Arropen markak, denborak, sailkapenak, esponsorrek, hori guzti hori inguratzen duenak irentsi du kirola, berau baino garrantzitsuagoa bihurtuz. Egilea baino inguratzen duen gutzia gehiago da, irabazleak salbu, noski.

### “Ahalik eta azkarren egitea kontua, nahiz eta inorekin hitz egin ez”

Makina bat kirol lehiaketa antolatzen dira bazterretan. Mendira joatea ere ez da nahikoa. Orain hiru handiak, lau hiriburuak, zazpi lurraldeak, hamalau orduak ahalik eta azkarren egitea da kontua, nahiz eta inorekin hitz egin gabe edo ingurua ikusi gabe egin ibilbidea. Ea lagunak baino marka hobea egiten dugun edo iazko marka ontzen dugun. Bestela ez omen du meriturik. Izango ez du ba!

Beste moda bat honi lotua: kaskoak, belarritakoak edo pinganilloak jarri eta ipod-a soinean eramanaz, musika entzuten korrika edo beste kirolen bat egitea da. Orain kirola bakartu egin da. Txorien kanta ez entzuteko edo inorekin ez hitz egiteko nonbait. Gimnasioan ere aurikularrak edo MP3a soinean ez dituenak ez da ezer. Badijudi hori gabe biluzik gaudela bizikleta gainean. Telebista eta gimnasioa aipatu dituzu, Abel. Bada, orain gimnasio asko telebista planoz josita daude kirolariak entretenitzeko. Kirola bera nahikoa entretenimendu ez balitz bezala.



Elgoibarko Udala



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO



Lehenengo mugikorra atera zenetik  
25 urte pasatu dira.

## Eskuko telefonorik gabe bizi ahal izango zinateke?



**Pedro Garate**

**76 urte, jubilatua**

Bai, nik ez dut ia erabiltzen. Andreamentzat eroso a omen da. Ez dut poltsikoan eramaten. Etxean nagoenean erabili ohi izan dut, mugikorretik mugikorrera deitzeko merkeagoa delako.



**Conchi Calderon**

**57 urte, etxekoandrea**

Ez. Lau mugikor ditut. Niretzako beharrezkoa da, eta ezin izango nuke horiek gabe ibili. Familia eta lagunekin harremanetan egoteko modua da. Orain dela bederatzita urte erosi nuen lehenengoa.



**Idoia Peñagarikano**

**35 urte, ile apaintzailea**

Bai, nire lanagatik beti leku berean nago, eta ni topatzea oso erraza da. Lehenengo batean lagun batek esan zidan lehen ere konpontzen ginela mugikorrik gabe, eta senarrak hiru aldiz deitu berri ziola.



**Jose Luis Soutullo**

**33 urte, langilea**

Bai, ez dut mugikorraren beharrik. Benetan beharrezkoa denean bakarrik erabiltzen dut. Jende askok neurritik kanpo erabiltzen du. Fakturarekin etortzen dira komeriak gero.

**10**  
eko  
**TXIKIAN**



**LUCIA  
MOLINA**

Etxekoandrea

### **1. Herriko txokorik gustukuena? Eta zatarrena?**

Gustukoena Urasandi da. Plaza Handia ez zait gustatzen, egunero txutumutxu gehiegi zabalitzen direlako.

### **2. Zer falta zaio Elgoibarri? Eta zer dauka soberan?**

Umeentzako estalita dagoen lekuren bat falta zaio. Nire ustez ludoteka txikiegia da. Urte osoan egiten du euria, eta umeak ditugunok nora joan ez daukagu. Soberan, berriz, tabernak daude.

### **3. Alkatea bazina, zer egingo zenuke di-da batean?**

Piboteak jarriko nituzke espalo guztietan. Seinale gehiago jarriko nituzke umeentzako, Gasteizen dauden modukoak. Urasandiko zebrabidea altuago jarriko nuke, gida baimena atera berri duten gazteek ez dakitelako lehenengo eta bigarren martxan joaten.

### **4. Herri euskalduna iruditzen zaizu gure herria?**

Nahikotxo. Euskara ikasten ari naiz.

### **5. Egia da jendea oso gutxi mugitzen dela?**

Bai, egia da. Jendea interesegatik mugitzen da, bereari eusteko. Gauzak ondo egiten ari zaren bitartean, primeran; bestela, paso egiten du.

### **6. Aukera nahikoa dago Elgoibarren kirola egiteko?**

Ez, bizikletan mordoia ibiltzen naiz eta errepideak beldurra ematen dit. Bidegorriak falta dira.

### **7. Ausartzen zara kultur eskaintzari tentsioa hartzen?**

Bai, kultur eskaintza nahikoa dago. Heziketaren inguruko hitzaldi gehiago egin beharko lituzkete gazteentzako.

### **8. Nolakoak gara elgoibartarrak?**

Elgoibarkoa naiz, eta ez dakit. Beste lekuen pareko jendea dago.

### **9. Joango zinateke beste herriren batera bizitzera? Nora?**

Ez, nahiz eta Elgoibarren ez dagoen nahi dudana guztia.

### **9. Ondo komunikatuta dago gure herria? Erabiltzen duzu garraio publikoa?**

Bai, baina bizikletaz edo autoz mugitu ohi naiz.

### **10. Ipini nota gure herriari, 0etik 10era.**

Herriari 4,5 eta alkateari 5,75.



**Herriko erdigunean bizi garenok ezin dugu lasai lo egin:** "Herriko erdigunean zarata gehiegi egoten da egunero. Plaza Handitik gertu bizi diren herritarrek elizako kanpai hotzak jasan behar dituzte goizean, arratsaldean eta gauean, ordu laurdenero; zaborra biltzeko kamioia ere goizean goiz edo gauean pasatzen da; autoak eta motorrak edozein ordutan sekulako zarata ateratzen ibiltzen dira, jendeak ez dakielako oinez ibiltzen; eta, gainera, zapatu gauetan San Frantzisko kalean egoten den zarata jasanezina da. Asteko egun batean ere ezin dugu lasai lo egin! Denok bizi behar dugu herri honetan, eta zaratak murrizteko eskatu nahiko nuke. Eskerrik asko!".

**Madala inguruan kutxazain automatikoak behar dira:** "Madala ingurua indarra hartzen ari da. Gero eta dena eta jatetxe gehiago dago ingurune horretan, baina ez dago kutxazain automatikorik. Erosketak egitera joaten den jendea King-Kong ingurura joan behar izaten da dirua ateratzera, eta askotan, Plaza Handiraino. Ondo legoke Madala aldean kutxazain automatikoren bat jartzea. Mila esker!".


**Gelatxo Orkestraren dantzaldiak berriz jartzea nahi dugu:** "Lehen domeketan Gelatxo Orkestraren dantzaldia izaten genuen, baina kendu egin zuten. Giro oso ona izaten genuen jubilatuek eta berriz jartzea nahi dugu".



Zuen kezak, galderak edo txaloak bidaltzeko: [barren@elgoibarzarra.com](mailto:barren@elgoibarzarra.com) 943-74 41 12



**Zubibai Elkarteak eskerrak eman nahi dizkiete domekako ibilaldian parte hartu zutenei:** "Altzola inguruan egin genuen ibilaldia joan zen domekan. 28 lagun bildu ginen guztira, eta, zorionez, eguraldia ondo portatu zen. Ume mordoxka bat etorri ziren, eta uste genuena baino denbora gehiago behar izan genuen ibilaldia egiteko. Ibilaldia amaitu ondoren, mokadutxoia egin genuen Zelaian indarrak berreskuratzeko. Eskerrak eman nahi dizkiegu Netto supermerkatuari, Altzolako Urak enpresari eta Zubia jatetxeari. Oso ondo pasatu genuen".



**MEKANOSA**

Errosario, 27  
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX



**CORDON VILARCAO**

San Roke, 7 behea  
Pel. Glaso - Glasage kalea, 10 - 25 eta 26 moduloak  
Tel. 943 740 570

**DEKORAZIOA**

Kanpo eta barneko estaldura  
Zokuen kolokaketa  
Lokazioa: egur, aluminio, P.V.C.  
Pintura ekologikoa



Tel: 943 74 10 11

- 🚗 **IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK EUSKARAZ eta GAZTELANIAZ.**
- 🏎️ **ZIKLOMOTORREKO LIZENTZIA ASTEBETEAN. AZTERKETARIK GABE!**
- 🏆 **IZENA EMATEAN %10EKO BEHERAPENA**

**Gaindi ezazu motorraren teorikoa 16 urte bete aurretik eta autoaren azterketa teorikoa 18 urte bete aurretik!**

*Zatoz informazio eske!*

# Iragarki laburren atala jarri du martxan elgoiBARREN.net atariak beste komunikabide batzuekin elkarlanean

BARREN astekariak ostiralero kaleratuko du papereko gehigarria gaurtik aurrera

Euskarazko iragarki laburren atala jarri du martxan *elgoiBARREN.net* atariak. Elgoibarko iragarkiez aparte, Euskal Herri osoko iragarkiak ere izango dira bertan, eta norberak bere iragarkia jartzeko aukera izango du. Bertako Hedabideak enpresarekin elkarlanean ekin dio atariak *iragarkilaburrak.com* proiektuari. Horrekin batera, gaurtik aurrera (ekainak 20), BARREN astekariak ostiralero banatuko du iragarkien papereko gehigarria.

## Euskarazko iragarkien azoka

Euskarazko iragarki laburren azoka da *elgoibarren.iragarkilaburrak.com* web gunea. Edozer saldu edo erosteko balio du: etxeak, autoak, bizikletak, motorrak eta abarrak. Horrez gain, lana eskaintzeko eta eskatzeko iragarkiak izango dira, edota pisukideak bilatzeko.

Euskal Herriko beste herri batzuetako ehunka iragarki aurkitu daitezke bertan, hainbat ataletan sailkatuta, nahi dena erraz aurkitzeko bilatzaile garatuekin.

iragarkilaburrak.com			
<b>jarri zure iragarkia</b>	<b>Etxealdia (162)</b>	<b>Motona (108)</b>	<b>Gurejask (10)</b>
	Salgai (541)	Salgai (100)	Salgai (2)
	Errentan eman (1)		Errentan eman (8)
	Errentan hartu (5)		Errentan hartu (0)
	Pisuk konpartitu (18)		
	<b>Lana (116)</b>	<b>Inkeakuntza (11)</b>	<b>Donerarik (51)</b>
	Eskatzerik (34)	Eman (10)	Salgai (40)
	Eskaintzak (82)	Hartu (1)	Geldu (2)
			Aurkitu (1)
			Eman (4)
			Hartomenak (4)
	<b>Bidaiak (27)</b>		
	Eskaintzak (27)		

Gainera, norbanako bakoitzak zuzenean eta modu errazean sartu dezake bere iragarkia web gunean. Egin beharreko bakarra erregistratzea da; eta behin hori eginda, iragarkiari buruzko informazio guztia sartu ahal izango da, erretratu eta guzti.

## Zabalkunde handia

Proiektuak zabalkunde handia izango du. Euskal Herriko hamabost webgune

nek parte hartuko dute. Papereko gehigarriaren 100.000 ale banatuko dira: *Hitza* guztiekin eta *Berria*-rekin, eta *Txintxarri*, *11barri*, *UKberri*, *Pilpilean*, *Uztarria*, *Guaixe* eta BARREN herri aldizkariekin. Bilbo, Iruñea, Gasteiz eta Hendaian ere paperezkoa banatuko dute, hainbat lekutan.

Informazio gehiago:  
[www.elgoibarren.iragarkilaburrak.com](http://www.elgoibarren.iragarkilaburrak.com)

## Espetxealdi arindua ezarri dio epaileak Mikel Ibañez presoari



Astelehen gauean ekarri zuten Mikel Ibañez preso elgoibartarra Madrildik Donostiako Ospitalera. Epaileak espetxealdian arindua ezarri dio eta Amnistiaren Aldeko Mugimenduak badintzarik gabe aske egon behar duela exijitu du, osasun egoera larrian dela-eta. Ibañezek minbizia dauka eta kimioterapia tratamendua hartzen ari da. Martitzen arratsaldean kontzentrazioa egin zuten hainbat lagunek Donostiako Ospitalearen aurrean, Mikel Ibañez baldintzarik gabe aske lagatzeko eskatuz. Elkarreratze horretan Jon Garate "Katalo" elgoibartarrak hitz egin zuen. Bere esanetan Ibañezek kartzelan jasandako baldintza txarrak eta jasotzen dituen mediku laguntza urriak izan dira gaixotasuna areagotzeko arrazoiak. Katalok Ibañezen egoeraren erantzule bakarra PSOeren Gobernua dela esan zuen. Atzo, eguena, Elgoibarren egin ziren Mikel Ibañez aske uzteko mobilizazioak.

## Pertsonaia **Juan Mari Mendizabal**



Behin behineko askatasuna eman diote Juan Mari Mendizabali eta 6.000 euroko fiantzapean aske ateratzeko aukera du, abokatuaren helegitea onartu egin dute-eta. Juan Mari Mendizabal iazko azaroaren 30ean atxilotu eta espetxeratu zuten 18/98 auziagatik, hamahiru urteko kartzela zigorra betetzeko. Bonxeko (Galizia) espetxean ari da zigorra betetzen. 18/98 auziaren kontrako errekurtoa mar-txan da, eta urri inguruan emango dute horren berri.

## Zenbakia **121.148**

Bederatzi eskailera mekaniko atal daude une honetan Elgoibarren, (Urasandin Errotaberrin eta Artekalen) eta horien mantenuko 121.148 euro bideratzen ditu urtean Udalak. Thyseenkrupp eta Orona enpresak arduratuko dira eskailera mekanikoen mantenuaz, Udalaren lehiaketa irabazi eta gero. Udalak enpresa horiekin sinatutako kontratua urtebetekoa da, eta beste urtebete gehiago luzatzeko aukera dute.

## Irudia **Paiten laguna**

Cruz Agirre egunero joaten da ahatei jaten ematera. Jubilatuta dago, eta horixe izaten da bere ilusioa. Santa Ana kale amaieran izaten ditu zain paitak, eta bera ikustean berehala hurbiltzen zaizkio. Erretratuan ikusten dugu uso eta paitez inguratuta. Lagun berria egin dute Deba ibaiko paitek.



## **Mezen udako ordutegia**

Ekainaren 22tik aurrera, udako ordutegia izango dute mezek. Hortaz, domeka eta jai egunetan meza gutxiago eskainiko dira. Hauxe da udako ordutegia:

- Madalan: 8:30ean.
- Santa Klaran: 10:00etan.
- Parrokian: 11:30ean.

## **Hilerrira bisitak, asteburuan**

Olasoko hileriko sarreran erreteila egiten ari direnez, astelehenetik barixakura hilerrira bisitarik ez egiteko aholkua eman die herritarrei Udaleko Ongizate Sailak. Hilerriko bisitak asteburuetan egiteko eskatu dute Ongizate Saileko arduradunek, obrak amaitu artean.

## **Euskara ikasteko laguntzak**

Elgoibarko Udalak euskara barne-tegi batean ikasteko dirulaguntzak emango dizkie ikasle eta langabetuei. Egonaldiaren gastuaren %40 finantzatuko du, gehienez 180 euro emango ditu, beti ere, barne-tegiko gastua 600 eurotik beherakoa denean. Gainontzeko kasuak banan-banan aztertuko ditu Udaleko Euskara Sailak. Informazio gehiago, [www.elgoibar.org](http://www.elgoibar.org) web gunean edo 943 74 43 66 telefonoan.

## **Esperientzia Eskolan amaitu da ikasturtea**

Debegesak antolatzen duen Esperientzia Eskolako ikasleak oporretan daude, dagoeneko. Aurten hamazazpi ikasle izan dira guztira, eta tartean, Pedro Ortiz de Villaba elgoibartarra. Argazkian ikusten dugu kurtso amaierako diploma jasotzen.



**Gaurtik zaude oporretan. Zer egingo duzu?**

Igerilekura joango naiz lagunekin eta Galiziara gurasoekin.

**Baina herriko jaietan hemen egongo zara?**

Bai, Gazteen Eguna gustatzen zait gehien, zezen txikien aurrean ibiltzea. Ez dit beldurrik ematen.

**Hilaren 26an notak jasoko dituzu. Ikasle ona zara?**

Bai (*irakasleari begiratu dio*).

**Hiru txirloan ere fina zara, aitaren eta amaren moduan...**

Aitarekin hasi nintzen bolatokira joaten, eta gustatu egiten zait. Etxean noizean behin bakarrik hitz egiten dugu hiru txirloari buruz.

**Zure ametsa, orduan, hiru txirloko jokalaria izatea litzateke?**

Futbolaria izatea nahiago nuke.

**Realak galdu egin du...**

Igotzea nahi nuen.

**Eurokopa jarraitzen ari zara.**

**Zein da zure favorittoa?**

Portugal, eta gero Espainia eta Holanda.

**Ikasgelako ilehori bakarra zara?**

Mutiletan bai, gero neska bat ere badago.

**Kanpotarra zaren galdetu dituzte?**

Ez.

**Esaten dute ilehoriek atentzio handia pizten dutela?**

Ez dakit. Beckham ilehori da.

**Idolorik baduzu?**

Cristiano Ronaldo eta Messi.

**Lehiakorra zara?**

Bai, lehenengo postuetan geratzea gustatzen zait.



## Irteera



### Ikasturteko azken irteera

Herri Eskolako ikasle eta gurasoek Enaitzera egin zuten ikasturteko azken mendi irteera, Urbia gaineko mendira. Aizkorriko maratonia zela eta, jendetza izugarria zegoen Urbian. Antxintxikiak ikusteko aukera ere izan zuten.



# PENA EMAN DIZU REALA LEHEN MAILARA EZ IGOTZEA?

## Unax Goñi

5 urte

Bai, pixka bat. Espero nuen. Berrito huts egin dute. Zorte txarra izan dute Realekoek.



## Naia Arozena

6 urte

Ez naiz futbolzalea eta berdin zait, baina jende askori pena eman dio. Aitak eman zidan berria.



## Irene Alonso

6 urte

Pixka bat. Ez nuen azkenen partida ikusi. Aitak esan zidan Realak ez zuela igoera lortu.



## Iñigo Otero

6 urte

Pixka bat. Realzalea naiz baina txarrak dira. Datoren denboraldian lortuko dute igoera.



## Ion Mujika

5 urte

Ez, ez ninduen harritu. Realekoak Athleticekoak baino hobekak dira. Athleticekoak txarrak dira.



## Iosu Urzainki

5 urte

Pixka bat. Ez nuen partida ikusi. Ez da ezustekoa izan. Gaizki jokatuko zuten.



## Arbelean

### Zaindu ezazu ingurugiroa

Zaindu ezazu ingurugiroa gaiarekin Urbil merkatal guneak idazlan lehiaketa antolatu du Gipuzkoan, eta lehenengo saria Elgoibar Ikastolako Ekaitz Atxak irabazi du. Horrekin batera, beste ikasle hauek aipamen berezia jasodute: Egoitz Otaegi, Unai Sanz, Mirian Elustondo eta Haritz Larruskain. Zorionak!

Argazkian, ezkerretik eskuinera Haritz, Ekaitz, Egoitz, Mirian eta Unai.



## Gure berbak

### Aditza (20): aditz gehiago

Aurrekuetan bezela, aditz batzuk gogora ekartzen ahaleginduko naiz gaurkuan ere. Bigarren adibide-sailla da gogora ekarri nahi dittudan aditzak dakarrena. Batzuetan zuzenketak dira; beste batzuetan estilo edo gusto kontuak; asmatuko ahal dogu zein dan zein!

- *Desesperauta nago Realaren martxiakin: hola ez guaz iñora!*
- *Zeozer lortu nahi dau, eta pelotia egitten dabil semia aspaldixan.*
- *Keixak batzen harrapau gaittu basarritarrak, eta bronkia bota digu.*
- *Nekauta ibili naiz aste honetan, eta zapatuan kriston siestia botako dot.*
- *Gu ezkondu giñanian, Franco oindik bizi zan: etara ondorixuak!*
- *Kontuz ibili zaitte, peligrasua da lagun hori eta!*
- *Andria daka pixkat desmejorauta: batian desgastia dala, bestian eztakit ze!*

Hona, horren onduan, beste aukera batzuk, sarritan hobiak diranak:

- *Etsitta nago Realaren martxiakin: hola ez guaz iñora!*
- *Zeozer lortu nahi dau, eta jaboia ematen dabil semia aspaldixan.*
- *Keixak batzen harrapau gaittu basarritarrak, eta kargu hartu digu.*
- *Nekauta ibili naiz aste honetan, eta zapatuan kriston siestia egingo dot.*
- *Gu ezkondu giñanian, Franco oindik bizi zan: etara kontuak!*
- *Kontu egizu, peligrasua da lagun hori eta!*
- *Andria daka pixkat eskastuta: batian desgastia dala, bestian eztakit zer!*

Jesus Mari Makazaga

## Erretratu zaharra

### 1959

Aste honetako erretratu zaharra Jorge Urbietak ekarri digu. 1959. urteko San Bartolome jaietan ateratako erretratua da, Txarriduna jatetxean. Garai hartan ere lan handia izaten zuten San Bartolomeetan eta ikusten denagatik, koadrila ederrak egiten zuten lan bertan. Ohikoa den moduan, batzuk parranda egiteko beste batzuk lan egin behar!

Ikus dezagun zein diren argazkian azaltzen direnak:

**Goian, ezkerretik eskumara:** Maria Jesus Urain, Adolfo Bahamonde, Mari Iza-girre, Maritxu Urain, Jorge Urbietak eta Maribel Arriola.

**Makurtuta:** Isabel Azpeitia, Esther Salaberria eta Mari Tere Salegi.



## ESKERTZA



2008ko ekainaren 1ean hil zen *Gloria Arano Oregui* andrearen sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.





Maiatzean...

## JAIOTAKOAK




**Hodei Agirre Pefiagarikano**  
Maiatzak 3  
Pedro Maria eta Idoia



**Nadet Martin Gonzalez**  
Maiatzak 2  
Juan Carlos eta Estibaliz



**Saioa Etxeberria Zabalo**  
Maiatzak 7  
Alfredo eta Deñe



**Haitz Ofiederra Gonzalez**  
Maiatzak 12  
Mikel eta Ainara



**Aimar Muguruza Boyer**  
Maiatzak 14  
Unai eta Maria Juana



**Maria Sasiain Laskurain**  
Maiatzak 16  
Asier eta Lucia



**Alain Alvarez Berdonces**  
Maiatzak 17  
Alexander eta Maria Paz



**Gari Gonzalez Rodriguez**  
Maiatzak 23  
Alberto eta Saioa



**June Galeano Vela**  
Maiatzak 30  
Javier eta Edurne



**Ainhez Aristondo Unamuno**  
Maiatzak 29  
Iñigo eta Agurtzane



**Iñigo Malave Retolaza**  
Maiatzak 14  
Jose Luis eta Leire



**Naroa Muguruza Irdondo**  
Apirilak 14  
Jon eta Maite

**Ajosu Armentia Villena**  
Maiatzak 3  
J. Alberto eta M. Isabel

**Josu Revert Perez**  
Maiatzak 17  
Vicente eta Amparo

**Olatz Arrieta Galarraga**  
Maiatzak 30  
Jon eta Esther

## EZKONDUTAKOAK

• Veronica Sarmiento eta Oscar Cuevas Maiatzak 3

## HILDAKOAK

Angela Pujarra Garate • 91 urte • Maiatzak 6

Isabel Soto Gonzalez • 80 urte • Maiatzak 6

Lazaro Azpitarte Lete • 87 urte • Maiatzak 22

# ETXEBERRIA

Hileta zerbitzua  
OSOA eta 24 ORDUKOA

TANATORIOA



**KUTXAK  
TRASLADOAK  
KOROAK**

**NORBANAKOEI  
eta  
KONPAINIEI  
zuzenduriko  
zerbitzuak**

**Erietxe  
zentruetan  
zerbitzuak**

Santa Klara, 14 • 20870 ELGOIBAR  
Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27  
(Etxekoa) 943 74 01 17- 943 74 16 56  
(Sakelekoa) 635 756 295

Atal honetan zuen seme-alaba jaioberriaren argazkia jartzea nahi izanez gero, deitu BARREN astekarira 943 74 41 12 telefonora edo bidalie-postaz barren@elgoibarkoizarra.com helbide elektronikora.

## Elgoibarko euskarazko ondarea kontsultatu ahal izango dute herritarrek, interneten jarri dute-eta

Zaharrei egindako elkarrizketak eta 1930-36 urteetan argitaratutako albisteak jarri dituzte

**E**lgoibarko pertsona nagusien grabazioak eta herriari buruzko kronika zaharrak batu, digitalizatu eta Interneten jarri ditu Elgoibarko Udalak aste honetan bertan. Horren bidez, nahi duen edozein herritarrek kontsultatu ahal izango du euskarazko ondarea.

Ekimenaren aurkezpen ofiziala martitzenean egin zuten. Bertan eman zituzten xehetasunak. Lanak *elgoibar.org* webgunean daude.

Alde batetik, nagusiei egindako grabazioak kontsultatu daitezke. Elgoibarko Ahotsak dauka izena egitasmo horrek. Zaharrei egindako elkarrizketak digitalizatu dituela azaldu du Badihardugu elkarte Aintzane Agirrebeñak: "Bildutako ahozko ondarearen pasarterik interesgarrienak jarri ditugu Interneten, guztira 43 hizlari, 708 pasarte, eta 114 audio jarri ditugu".



### Kronika eta albisteak

Bestetik, Elgoibarko bizimoduari buruz, 1930etik 1936 urtera arteko prentsan euskaraz argitaratutako kronika eta albis-

teak batu eta digitalizatu ditu Digitalidadea enpresak. Guztira, 394 kronika eta 1.607 albiste jarri dituzte Interneten. Albisteak bilatzea oso erraza dela azaldu zuten.

## Euskal kultura tradizionalari buruzko ikastaroa emango du Xamar idazleak udazkenean



Elgoibarko Izarra elkarteak kultura tradizionalari buruzko ikastaroa antolatuko du udazkenearako. Gainera Irakasle paregabea ekartzea lortu du: Juan Carlos Etxegoien "Xamar" hizkuntzalari eta idazle nafarra. *Euskal kultura tradizionala ezagutzuz* izeneko ikastaroa emango du.

Ikastaroa hogeitauko ordukoa izango da, irailaren 24tik azaroaren 26ra, eguztenetan. Plazak mugatuak izango dira eta izenematea zabalik dagoela gogoratu du Elgoibarko Izarrak. 30 hamar euro ordaindu beharko dira parte hartzeko (erdia langabetu eta ikasleek). Ikastaroan honako gaiak landuko dira: etxea, herri egiturak, inauteriak, ahozko kultura, mitologia, sinismenak eta euskara. Izena emateko edo informazio gehiago, 943 74 16 26 (Imanol) zenbakian edo *imanol@elgoibarkoizarra.com* e-postan.

### Dantza ikuskizuna gaur gauean

*Mundu Bira 80 dantzatan* ikuskizuna eskainiko du Triska dantza taldeak gaur, barixakua, Olazaga kiroldegian, 22:00etatik aurrera. Hainbat herrialde eta kulturatako doinuen bidez, bidaia irudikatuko dute dantzariak. Eskualdeko 140 dantzarik parte hartuko dute Txomin Mujikak zuzendutako ikuskizunean.

### San Juan jaiak Altzolan

Txupinazoarekin hasiko dira gaur, barixakua, Altzolako San Juanak. Ospakizunak bihar, 23an eta 24an ere izango dira. Bihar gauean trenak geldituko dira Altzolan. Elgoibartik joateko: 21:23, 22:36, 23:14, 00:14, 01:14, 02:14, 03:14, 04:14, 05:14, 06:14, 07:14, 08:23. Buelta-zeko: 21:02, 22:02, 23:24, 00:54, 01:55, 02:54, 03:55, 04:54, 05:55, 06:54, 07:19, 07:54. Egitarau guztia, agendan.

### Bandaren kontzertua

Udal musika Bandak kontzertua eskainiko du domekan, ekainaren 22an. Txomin Mujikak zuzenduko du banda, Herriko Antzokian, 12:30etatik aurrera. Bost pieza joko dituzte: *Filigrana* pasodoblea (Dorado), *Le Cheval de Bronze* obertura (Auber), *Ezpata-dantza de Amaya* (Guridi), *Pirates of the Caribbean* suite sinfonikoa (Badelt) eta *Tico-tico* samba (Abreu).

# LOREA SANTIAGO

Antxintxikaria

**Denboraldi oso ona egin dute Mintxetako atletismo taldeko gazteek. Lorea Santiagok bereziki. Gipuzkoako Pistako txapelketan garaipena lortu du 500 metro eta 2.000 metrotan alebin mailan. Krosean ere bikain moldatzen da. Datorren urtean infantiletan lehiatuko da, eta Euskal Herriko onenen artean zeresana emateko prest dago. Etorkizun oparoa badu ere, ez zaio gustatzen lorpenak bere aurrean goraiatzeari. 11 urte ditu, eta antxintxikarako berezko dohaia.**

## “Irabazteak ez nau arduratzen”

**Norbaitek animatuta hasi zinen antxintxika?**

Nire ahizpa Nora hasi zen lehenengo korrika, eta gero ni animatu nintzen. Ama ere korrika ibiltzen da.

**Genetika ona duzu, amaren gurasoetatik hasita...**

Bai, aitona-amonak mendian jo eta su ibili izan dira. 74 urterekin egin zuen iaz Elgoibarko mendi itzulia amamak. Amaren aitita Espainiako jabalina txapeldun izan zen, eta Olinpiar Jokoetan ere egon zen...

**Orain dela hiru urte hasi zinen entrenatzen. Zenbat aldiz astean?**

Hiru bider.

**Hasieran kostatu egin zitzaizun?**

Pixka bat. Gelako neska antxintxikari bakarra naiz. Mutil batek ere entrenatzen du.

**Gogoratzen duzu irabazi zenuen lehen domina zein izan zen?**

Ikastolako krosean. Alebinak izan arte ez gara lehiatzen hasten. Joan zen urtean, 2.000 metrotan Gipuzkoako txapeldunordea izan nintzen, eta aurten txapelduna 500 eta 2.000 metrotan. Datorren urtean kategoriaz aldatu eta infantila izango naiz.

**Gipuzkoako lehenengo domina irabaztea ezustekoa izan zen?**

Ez nuen espero. Txikiena nintzen; harrituta geratu nintzen. Lehe-



nengo geratu zena ni baino bi urte nagusiagoa zen. Olatz Flores zauraztarra infantiletan onena da.

**Lagunak zarete?**

Bai. Aurten ez dugu batera korrika egin; nire ahizpak bai.

**Abiadura probak ala fondoa nahiago?**

Fondo.

**Abiadura baduzu azken metroetan?**

Abiaduran hobetu beharko nuke. Erresistentzia ona dudala esaten dute.

**Zein helburu dituzu epe motzera?**

Nire markak pixkanaka-pixkanaka hobetzen joatea. 500 metrotan marka hobetu dut. Irabazteak ez nau arduratzen.

**Lehiatzen jarraitzeko asmorik baduzu?**

Bai, argi daukat jarraitu nahi dudala. Eskola kirolaren sasoian ere, garbi neukan atletismoa egin nahi nuela.

**Amets egin dezagun. Zein txapelketa gustatuko litzaizuke irabaztea?**

Ez dakit. Asko entrenatu behar da emaitza onak lortzeko.

**Krosean ere Gipuzkoako txapelduna zara...**

Bai. Krosa atsegin dut. Onenei sinadura eskatu izan diet.

## Ane Uraini deitu dio Espainiako eskubaloi selekzioak



Espainiako selekzioaren kontzentrazioan parte hartzeko deia egin diote Ane Urain eskubaloi jokalaria elgoibartarrari, bigarren urtez jarraian. Elgoibarrera orain dela aste batzuk Espainiako kadete mailako talde onenetakoak etorri baziren, oraingoan Sanloko jokalaria joango da uztailearen 1etik 8ra Sorian egingo den kontzentrazioa.

Bestalde, Intxusarri Gipuzkoako txapeldunorde geratu da usurbildarren aurka gol bakar baten aldeagatik bakarrik galdu ondoren.

### SIGMA PILOTA TXAPELKETA

#### Ekainak 6

Konde 18 Larrañaga 8 (infantil alebinak)  
Agirresarobe 18 Amesti 4 (infantil alebinak)  
Karmel-Xabier 21 Arrillaga-Agirrebeña 22 (sen. 1<sup>a</sup>)

#### Ekainak 10

German-Karral 21 Zaruelo-Sarobe 22 (senior 2<sup>a</sup>)  
Beraza-Basueta 13 Karmel-Xabier 22 (senior 1<sup>a</sup>)

#### Ekainak 12

Konde 18 Ibarluzea 6 (inf.aleb.)  
Agirresarobe 18 Salegi 1 (inf.aleb.)  
Agirrezabalaga-Gabi. 10 Agirre.-Salegi 22 (sen. 2<sup>a</sup>)  
Arrillaga-Agirre. 21 Portu-Agirre. 22 (sen. 1<sup>a</sup>)  
Arribillaga-Egaña 22 Beraza-Basueta 7 (sen. 1<sup>a</sup>)

#### Ekainak 17

Zubi.-Umamun. 22 German-Karral 18 (sen. 2<sup>a</sup>)  
Karmel-Xabier 22 Kepa-Lizarralde 18 (sen. 1<sup>a</sup>)  
Beraza-Basueta 9 Arrillaga-Agirre. 22 (sen. 1<sup>a</sup>)

## Gipuzkoako Arku txapelketan fin ibili dira elgoibartarrak

Zarta elkarteko lau jokalaria lehiatu ziren Hondarrribian egin zen Gipuzkoako Arku txapelketan. Iñaki Badiolak lehen postua lortu zuen arku biribilduarekin final sailkapenetan. Final absolutuan hirugarren geratu zen. Itzargi Monasterio zarpigarren sailkatu zen arku konposatuaren finalean, eta Sergio Fernandez *Ferpi* bederatzigarren. Arku tradizionalan, Javier Baronak lehen postua lortu zuen, bera izan baitzen partehartzaile bakarra.



**BERRIA!**  
Etorri eta ikusi Itzazu eskuz margotutako kamisetak

**Emilia Nogales**  
Trenbete kalea 11, behea  
Tel: 943 743 668 / 684 224 421

**ELGOIBARREN**  
ORGANIZADOS  
S.COOP  
**BUKATU.**

OLASO Poligono Industrial - Olasepe kale, 6  
68 area - Telefonoa: 943 74 42 54 - Fax: 943 74 02 98  
20870 ELGOIBAR  
E-posta: [bukatu@bukatu.es](mailto:bukatu@bukatu.es) - [Http: www.bukatu.es](http://www.bukatu.es)

**INTURAK**  
PEDRO PEREZ BERISTAIN

Xizilon, 2 - 3.sotoa - 943 74 36 52 - 74 27 89

KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA

# Nahaste Borraste herri proba ekainaren 27an egingo da

Kimetz elkartearen eman ahal izango dute izena interesatuek egunean bertan, 18:00etan

**N**ahaste Borraste herri lasterketa-  
ren XXIV. edizioa hileko azken ba-  
rixakuan, ekainaren 27an, egingo  
da. Probaren hiru ardatzak izango dira  
bizikleta gaineko 7,2 kilometroak, 25 ki-  
loko harea zakua bizkar gainean hartuta  
egin beharreko 500 metroak eta azkenik,  
antxintxikako bi kilometroak. Izenematea  
egunean bertan egin ahal izango da,  
18:00etatik aurrera Kimetz elkartearen.  
Proba 19:00etan hasiko da. Partaide  
guztien artean ere afari bat zozketatuko  
dute Iriondo tabernan.

Hamasei urtetik gorako elgoibartarrek  
bakarrak parte hartu ahal izango dute.  
Lehenengo hiru sailkatuei garaikurra  
emango diete, eta baita lehen emaku-  
meari eta 40-50 eta 50etik gorako nagu-  
siei. Ainhoa Lendinez, emakumezkoetan,  
eta Jose Antonio Ruiz izan ziren iazko



irabazleak. Ruiz, gainera, Martin Domin-  
gezek ibilbide honetan ezarri zuen erre-  
korretik (18'35") bi segundu eskasera ge-

ratu zen. Iaz 34 partaide lehiatu ziren.  
Azken urteotan, Kimetz elkartearen ara-  
bera, indarberriturik dago proba.

## Herriko promesak bildu zituen Plaza Handiko Lagunak Pilota Txapelketak



Plaza Handian Lagunak elkartearen txapelketan jokatu zuten herriko gazteek  
pasa den asteartean. Benjaminetan Berazak Mugerza mendean hartu zuen 18 eta  
15eko emaitzarekin. Alebinetan (Lehen mailan) Larruskain eta Loidiren arteko parti-  
da izan zen estuena. Puntu bakarragatik irabazi zuen azkenik Larruskainek. Alebi-  
netan (Bigarren maila), Gurrutxaga nagusi izan zen. Larrañagak hamaika puntu lor-  
tu zituen bere aurka. Infantiletan, berriz, Amesti eta Konde bikoteak Ruiz eta Agirre-  
sarobe gainditu zituzten 18 eta 11ko emaitzarekin.

## C.D. Elgoibar

Datorren barixakuan egingo da azkenik  
C.D. Elgoibarren datorren batzarra. Bazkideak  
Kultur Etxean bilduko dira 19:00etatik aurrera  
zuzendaritza talde berria eta presidente  
izendatzeko.

## Zegama-Aizkorri

Morkaiko kideek Otzaurtetik Urbiarako  
bidea egingo dute uztailaren 6an. Zegama-  
Aizkorri maratoiko 22 kilometrorik ederrenak  
zeharkatuko dituzte. Otzaurten hasiko dira,  
Aratz igo, San Adrianera jaitsi, Aizkorri eta  
Aitxuri igo eta ondoren Urbiara joko dute,  
Oltzeko zelaietan zehar. Bukatzeko  
Arantzazura jaitsi eta etxerako bideari ekingo  
diote.

## Saskibaloia taldea

1996an jaiotako nesken taldea osatzeko  
deialdia zabaldu dute herritar batzuek. Eskola  
kirola bukatu ondoren, jarraipena eman nahi  
diote kirol horri. Alebin mailako talde horretan  
jokatzeko interesa duenak bi telefono zenbaki  
horietarako batera dei dezake: 699 452 998  
(Arantza) eta 616 210 078 (Juan)

## LANA

### ESKAERA

- Emakumea, lanerako prest: umeak edo nagusiak zaindu, etxeko lanak egin... Eskarmentuko eta autoa. ☎ 606 642 284
- LH eta DBHko partikularak emateko prest, euskaraz zein gaztelaniaz. Uztailen goizez. ☎ 688 664 727
- Esperientziadun sukaldaria, lanerako prest. ☎ 943 74 45 78
- Neska, lanerako prest. ☎ 659 194 189
- Emakumea, interna lan egiteko prest. ☎ 618 175 692
- Neska, arratsaldean lan egiteko prest. Garbiketarako, nagusiak zaindu... ☎ 696 246 962

- Neska, gauaz lan egiteko prest. Nagusiak zaindu edo sukalde laguntzaile moduan. ☎ 699 576 107

- Emakumea, umeak edo nagusiak zaintzeko edo garbiketara lanetarako prest. ☎ 696 284 351/943 53 01 32
- Klase partikularak ematen ditut. LH, DBH, LOGSE eta zikloak. Ekainean eta uztailean. ☎ 653 717 972
- Neska, umeak edo nagusiak zaintzeko, zerbitzari aritzeko edo garbiketara lanetarako prest. ☎ 680 350 527
- Neska, gauetan tabernetan edo garbiketara enpresa batean lan egiteko prest. ☎ 686 234 612
- Neska, nagusiak edo haurrak zaintzeko, edo garbiketara lanak egiteko prest. ☎ 626 876 186

- Neska, orduka astegunetan edo lan ordu osoa asteburuan egiteko prest. ☎ 646 821 678
- Neska, nagusiak edo haurrak zaintzeko, sukaldean laguntzaile aritzeko edo garbiketara lanetarako prest. ☎ 608 047 720

- Neska, zerbitzari aritzeko, umeak edo nagusiak zaintzeko edo garbiketara lanetarako prest. ☎ 675 709 452

- Neska, egun osoko lanean nagusiak edo haurrak zaintzeko prest. ☎ 671 476 869
- Neska, lanerako prest. ☎ 638 494 501
- Neska, lanerako prest. ☎ 686 265 293

- Neska, orduka lan egiteko edo garbiketara lanetarako prest. ☎ 943 53 02 90 / 688 682 398
- Mutila, banatzaile, igeltsu edo tailer batean lan egiteko prest. ☎ 639 984 262

- Neska, garbiketara lanak egiteko prest. ☎ 943 74 22 01
- Neska, portalak edo sukaldeak garbitzeko prest. ☎ 649 212 944

### ESKAINNTZA

- Eskarmentua duen sukaldaria behar da. ☎ 943 74 45 78
- Pertsona arduratsua behar da umeak uztailetik aurrera zaintzeko. ☎ 605 585 057
- Bitxiak, barruko jantziak eta kosmetika produktuak saltzeko pertsona behar da. Soldata ona. Ez da esperientziarik behar. ☎ 607824892
- Pertsona bat behar da gizon nagusia zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Abuztuaren 8tik 18ra. Gizarte Segurantzaren. Soldata ona. ☎ 639 931 772 (arratsaldeetan)

### ETXEBIZITZAK

#### SALMENTA

- Pisuak salgai San Roke auzoan. 90 m<sup>2</sup>. Hiru logela, bi bainugela, sukalde eta egongela. Gasa, garajea eta trastelekua. ☎ 696 301 694
- Etxe berria salgai Mendoran. 90 m<sup>2</sup>. Hiru logela, bi bainugela, egongela handia. Erdi ipinita eta modu onean. ☎ 652 757 240
- Etxea salgai erdigunean. 3 logela, 2 egongela, sukalde, 2 komun. Berritua, dena kanpoaldera. Ganbara eta igogailuarekin. Eguzkitsua. ☎ 606 707 915
- Etxea salgai. Erdigunean. Hiru logela, egongela eta sukalde, bainua eta ganbara. Kanpoaldera begira eta eguzkitsua. Altzariarekin eta igogailuarekin. ☎ 666 650 626
- Etxea salgai Erretxindin. Lau logela, sukalde berritua, eguzkitsua. Ganbara eta balkoi handia. Altzariarekin salgai. ☎ 628 115 677
- Buhardilla salgai Altzolan. 50.000 euro. ☎ 625 708 042

### GARAJEAK

- Garajea saldu edo alokatzen da Santa Ana 2an (Ametsa parean). ☎ 615 787 857
- 16 m<sup>2</sup>-ko garaje txikia alokairuan San Roke kaleko 10ean, kiroldegi atzean. ☎ 943 74 01 18
- Marradun garajea alokairuan, Juan Mugerza kalean (pista beltza). 38 euro hilabeteko. Autoa, Quad eta motorrentzako. ☎ 616 111 603

## MOTORRA

- Seat Ibiza salgai. Prezio onean. ☎ 678 803 535

### Seat Leon TDI beltza salgai

- 105 zaldi, eguzkirako goialdea, Kit aerodinamikoak. 15.000 km. 17.000 euro. Transferitua. ☎ 647 626 693

- Citroen C4 1.6 HDI. 60.000 km<sup>2</sup>. 92 zaldi. 10.000 euro. Negoziagarri. Egoera onean. ☎ 650 840 620
- Motorra salgai Rieju MRX. ☎ 943 74 41 41
- R-Traffic preparatua salgai. 9 urte. 260.000 kilometro. 1.900 diesel, 4.500 euro. Negoziatzeko moduan. ☎ 653 011 043
- Opel Astra coupe gasolinazkoa salgai. 95.000km. Egoera onean. 7.500 euro. (negoziatzeko). Beti garajeen. ☎ 665 727 979

## BESTELAKOAK

- Labea eta Mepansa eta plaka bitroze-ramikoa Aspes markakoa salgai. Berririk. ☎ 646 434 293

### Pianoa salgai


- Fuchs Et MÖhr markako pianoa salgai. Erabili gabe. ☎ 943 12 18 33 / 943 70 22 41

- Gortinak, altzariak, alfonbrak, oherako izarak eta elektrogailuak behar dira. ☎ 676 444 171
- Zapatilari lotzen zaizkien gurrupilak ahaztu nituen domekan, ekainak 8, Sig-mako frontoian. Beltzak dira, argiekien. ☎ 600 300 682

### Negozia salgai erdialdean

- Herri erdigunean dagoen negozioa salgai. Prezio onean. ☎ 638 555 945 / 943 74 19 78

- The Police-n kontzerturako sarrera salgai. Prezio berean. 72 euro. Uztailaren 4ean (BBK Bilbao Live). ☎ 626 146 849
- Baratza konpartitu nahi nuke. Alde zaharretik gertu dago. Ura du, baita simaurra eta lan egiteko erremintak ere. ☎ 655 723 678 / 943 74 39 19



## BEKAK

### PRAKTIKAK

Praktikak egiteko Sepi fundazioaren eta Alcoaen 40 beka.

Epea: ekainak 22.

### TENE MUJIKUA BEKA

Debako Udalak eta Elkar Argitaletxeak deituta. Euskal Herriko historia hurbilaren ezagutza zabaltzeko eta literatura aberasteko asmoz sortutako beka.

Epea: abenduak 1.

## LEHIAKETA

### KARTELAK

Hondarribiko Udalaren Kultura Zerbitzuak herriko jaiak iragartzeko antolatutako kartel-lehiaketa.

Epea: uztaileak 8.

## LANA

### ARKITEKTO TEKNIKOA

Bergarako Udalean Arkitekto tekniko lanpostu bat aldi baterako betetzeko oposizio-lehiaketa.

Epea: ekainak 30.

### BEHATZAILEAK

Ingurumen eta Landa eta Itsas Ingurune Ministerioaren Meteorologia Behatzaileen Kidegoan 25 lanpostu betetzeko oposizio-lehiaketarako deialdia

Epea: ekainak 24.

## ELGOIBARKO GAZTE INFORMAZIO GUNEA

Kultur Etxean, Bigarren solairuan.  
e-posta: [gib@elgoibar.org](mailto:gib@elgoibar.org)  
☎ 943 74 14 61

Astelehen, asteazken eta ostiral goizetan:  
11:00etatik 13:00etara  
Astelehenerdik ostiral arratsaldetan:  
16:00etatik 19:00etara.

## OHARRA:

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak hiru astetan agertuko dira BARRENen eta astero [barren.iragarkilaburak.com](http://barren.iragarkilaburak.com) atarian. Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta **15 euro** eta alokairua **10 euro**. Autoak **10 euro**. Eta bestelakoak **5 euro**. Eguazten eguerdia baino lehen. Tel.: 943 74 37 04

## MODULOAK

Lana / Bestelakoak

**Astebete : 5 euro**

**2 aste : 8 euro**

**3 aste : 10 euro**

Etxebizitzak/ Garajeak/ Motorra

**Astebete : 10 euro**

**2 aste : 17 euro**

**3 aste : 25 euro**



• Zorionak, **pobxolo**, atzo lau urte egin zenituen-eta. Familiaren eta Maixuxen partez ondo pasa.




• Zorionak, **Irene**, ekainaren 26an bi urte egingo dituzulako. Osaba-izeben partez.



• Zorionak, **Maider**, gaur sei urte egingo dituzulako. Familiaren partez muxu bat.



• Zorionak, **Nerea**, etzi zazpi urte egingo dituzulako. Muxu handi bat familiakoen partez.



• Zorionak, **Paula**, urtetxo bat egin duzulako. Ama, aita eta etxeko guztien partez muxu handi bat.




• Zorionak, **poxpolin**, bi urte egin zenituelako. Muxu erraldoi bat ikastolako laguntxo guztien partez.



• Zorionak, **Sara**, hilaren 23an hamar urte egingo dituzulako. Familiaren partez.



• Zorionak, **Malen**, politx hori, atzo bi urte egin zenituelako. Muxu handi bat familia osoaren partez.



• Zorionak, **Markel**, zure lehenengo urtebetetzean. Muxu handi bat denon partez etxeko gizontxoari.




• Zorionak, **Ander**, atzo bederatzi urte egin zenituelako. Bereziki Gorka eta Iratiren partez.



• Hainbeste urteren ondoren, lehenengo egunaren moduan jarraitzen duzue. Beñaten partez.



• Zorionak, **Enkami eta Gorka**, urte askotarako. Muxu asko familiaren partez.



• Irtsi da eguna! Ondo pasa dezazuela zuen ezkontza egunean. Zuen familia guztiaren partez.



### OHARRA

Norbait zoriondu nahi baduzu, argazkia eguazten eguerdia baino lehen ekarri behar duzu BARREneko bulegora edo [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com) e-postara bidali. Tel.: 943 74 41 12

### 10 SAIOKO PRESOTERAPIA

- Zelulitisaren garapena saihesten du.
- Barize-zainak eten eta tratatzen ditu.
- Edemak gutxitzen ditu.
- Sabela, hankak eta besoak modelatzen ditu.
- Hanketako mina arintzen du; haurdunaldirako, pertsona lodientzako, zelulitiserako eta genu erretentziorako aproposa.

Lehen:

170€

Orain:

140€

Eskaintza uztoil amalerara arte!



*Judith*  
EDERGINTZA

Eiroasiko Kalea, 19 - Tel.: 943 74 39 50 / 447743116

**OKINDEGIA**

15 domeka **IBARRENEA**

**FARMAZIAK**

**24 ORDUZ**

- 20 Garitaonaindia
- 21 Etxeberria (Santa Ana)
- 22 Etxeberria (Santa Ana)
- 23 Fernandez
- 24 Yudego
- 25 Zabaleta
- 26 Etxeberria (Errosario)
- 27 Zabaleta

**Ibañez**

Rekalde, 1 (SORALUZE)  
Tel: 943 75 16 38

**Fernandez**

Herriko enparantza 4,  
Garagarza (MENDARO)  
Tel: 943 75 61 42

**Zabaleta**

Kalebarren, 9 (SORALUZE)  
Tel: 943 75 13 84

**INFORMAZIO  
GEHIAGO:**



Egin klik

[www.elgoiBAREN.neten](http://www.elgoiBAREN.neten)



**dantza**

**20 barixakua**

**22:00 Dantza ikuskizuna**  
Triska dantza taldeak *Mundu bira 80 dantzatan* ikuskizuna eskainiko du Olaizaga kiroledegian.

**22:00 Kafea eta dantza**

Haizeak antolatuta, kafea hartzeko zita. Kultur Etxeko sotoan. Bertan, Azahara sevillana taldeak egingo du dantza.

**musika**

**22 domeka**

**12:30 Bandaren kontzertua**  
Udal Musika bandak kontzertua eskainiko du, Txomin Mujikak zuzenduta. Herriko Antzokian.

**erakusketak**

**20 barixakua**

**19:00 Egur arte tailerraren erakusketa**  
Egur arte tailerrean eginiko lanak ikusteko azken eguna. Kultur Etxean.

**aurkezpenak**

**24 martitzena**

**19:00 Eskola Ibiltaria**  
Ikasle Abertzaleak-ek antolatuta, Eskola Ibiltariaren aurkezpena egingo da. Kultur Etxean.

**besteak**

**21 zapatua**

**18:00 Jolasak**  
Eliza Ebanjelikoak antolatuta, gazteentzako jolasak. Madalako parkean.

**27 barixakua**

**12:30 IMHko zikloen kurtso amaierako ekitaldia**  
Diplomak eta IMH sariak banatuko dituzte. IMHn.



**GAZTELEKUKO EKINTZAK**

**BARIXAKUA 20**

Mintxetako igerilekura irteera 17:30

**ZAPATUA 21**

San Lorentzora irteera. San Juan ukendua egiteko belar bilketa 17:00

**DOMEKA 22**

Gazte zinema: "Hable con ella" 17:00

**MARTITZENA 24**

San Juan ukendua prestatu 17:00

**EGUAZTENA 25**

Surf ikastaroa, Zarautzen 10:00

**EGUENA 26**

Surf ikastaroa, Zarautzen 10:00



**LUDOTEKAKO EKINTZAK**

**BARIXAKUA 20**

Mintxetako igerilekuetara irteera 16:00-19:30

**ASTELEHENA 23**

Eskulanak 16:30-19:30

**MARTITZENA 24**

Udari ongi-etorri festa 17:00-19:00

**EGUAZTENA 25**

Antzerki tailerrekoek antzerkitxoa prestatu 16:30-19:30

**EGUENA 26**

Antzerki tailerrekoen antzerkia 18:00

**«Los falsificadores»**

20, barixakua: 22:15  
21, zapatua: 19:00/22:15  
22, domeka: 19:00  
23, astelehena: 21:30

**Zuzendaria:** Stefan Ruzowitzky.

**Aktoreak:** Karl Markovics, August Diehl, Devid Striesow, Martin Brambach. **Iraupena:** 98 min.

Berlin, 1936. Nazismoa. Sorowitsch diru faltsutzaileren erregea naziek atxilotu eta

kontzentrazio esparru batera eramango dute. Bertan, faltsutzaille talde batekin lan egitera behartuko dute. Egoerak moralaren dilema eragingo dio, borrhoren lankide izateak gerra luzatu eta alemaniarren garaipena ekar baitezake.



## SAN JUAN JAIK ALTZOLAN

### 20 BARIXAKUA

19:30 Txupinazoa

20:00 Dantzaldia

22:30 Darling Shoes taldearen kontzertua

23:30 DJ. gonbidatua

### 21 ZAPATUA

11:00 Umeentzako jarduerak  
Kato-kato, peto prestaketa eta ur guda.

11:30 Argazkil txapelketa

Egunean bertan ateratako argazki digital txapelketa.

Lehenengo hiru

irabazleentzako sariak izango dira.

12:00 Uraren jai

16:30 Mus txapelketa

Maria Tierno II. memoriale

23:00 "Disco fever"

Diskoteka mugikorra eta karaokea.

### 22 DOMEKA

11:00 Umeentzako tailerrak

16:00 Kina

Kartoi bakoitzak 0,10 euro balio ditu

Ordu berean, gaztelu puzgarriak

19:30 Argazki lehiaketako sari banaketa

20:00 Otarraren zozketa

21:00 Dantzaldia

### 23 ASTELEHENA,

#### SAN JUAN BEZPERA

14:30 Txapliguak eta kanpai jotzea

17:00 Haurrentzako jarduerak

Herri kirolak, lokotx-bilketa, txingak, sokatira...

Lehenengo hiru taldeek saria izango dute.

20:00 Meza santua eta salbea.  
Santuari jailetako zapia ipiniko diote.

21:00 San Juan arbola jartzea

22:00 Zubibai elkarteko

txapelketaren sari banaketa

23:30 San Juan sua ibaian

### 24 MARTITZENA,

#### SAN JUAN EGUNA

06:00 Auzoko portaletan San Juan adarrak jarriko dira

11:00 Prozesioa eta Meza santua

Parrokiako abesbatzarekin.

12:00 Herri kirolak

16:30 Haurrentzako jarduerak

Taldeak bereizteko petoak egingo dira eta ondoren erreleboka izango dira probak.

19:30 Parrillada

22:00 Dantzaldia

### 25 EGUAZTENA,

#### SAN JUAN TXIKI EGUNA

12:30 Auzokoen bilkura

frontoian eta zinta lasterketa

14:30 Herri bazkaria

17:30 Umeentzako jolasak

Ginkana, opariak, zezentxo eta poniak.

Ondoren, jaiak amaitzeko txapliguak botako dira

# Zerikasi

## IKASTAROAK

### Body board ikastaroa

Norentzat: 16 urtetik beherakoentzat

Hizkuntza: Euskaraz

Hasiera Data: 2008-6-30 / Bukaera Data: 2008-7-31

Non: Deba

Prezioa: 21 euro

### EGA azterketa prestatzeko ikastaroa

Norentzat: Interesatuentzat

Hizkuntza: Euskaraz

Hasiera Data: 2008-7-1 / Bukaera Data: 2008-9-19

Non: Elgoibar

Izenemate bukaera: ekainak 25

### Piragua ikastaroa

Norentzat: 16 urtetik gorakoentzat

Hizkuntza: Gazteleraz

Hasiera Data: 2008-7-7 / Bukaera Data: 2008-7-13

Non: Deba

Izenemate bukaera: Plazak bete arte

### Emakume zirkulua

Norentzat: 18 urtetik gorako emakumeentzat

Hizkuntza: Gazteleraz

Hasiera Data: 2008-7-3 / Bukaera Data: 2008-12-21

Non: Eibar

Izenemate bukaera: Ilargi bete baina lau egun lehen

### Engrase ikastaroa

Norentzat: Interesatuentzat

Hizkuntza: Erderaz

Hasiera Data: 2008-7-2 / Bukaera Data: 2008-7-9

Non: Elgoibar

Izenemate bukaera: uztailak 2

Informazio eta eskaintza zabalagoa:  
[www.zerikasi.com](http://www.zerikasi.com) edo 943 74 82 71

zure-azoka

elgoibarrren. [iragarkilaburrak.com](http://iragarkilaburrak.com)

www.iragarkilaburrak.com  
elgoibar@iragarkilaburrak.com  
txupinazoa@iragarkilaburrak.com  
sokatira@iragarkilaburrak.com  
astirak@iragarkilaburrak.com  
argazki@iragarkilaburrak.com  
aberi@iragarkilaburrak.com

ostiralero@iragarkilaburrak.com  
elgoibar@iragarkilaburrak.com  
txupinazoa@iragarkilaburrak.com  
sokatira@iragarkilaburrak.com  
astirak@iragarkilaburrak.com  
argazki@iragarkilaburrak.com  
aberi@iragarkilaburrak.com

nika bizi egiten

Erregistratu zaitez  
eta jarri zure iragarkia webgunean:


Gainera, ostiralero paperezko edizioa  
100.000aleko zabalakundearekin.

**Ekainak 20, 1 zka.**

enpresak  
eta enpresak

norbanakoak  
doan

# IKASBARRREN



## 250 lagun bi erroberatan



Herri Eskolako Guraso Taldeak antolatuta, Elgoibar Bi Erroberatan irteera izan zen domekan, ekainaren 15ean. Ikasle eta gurasoek Sallobentera egin zuten joan-etorria bizikletan. Ikastetxe guztietako jendeak hartu zuen parte, guztira 250 lagun inguruk, eta antolatzaileak gustura azaldu dira. Txirindulari proba hori urtetik urtera indarra hartzen ari dela azaldu digute.



## INTXUSARRI ESKUBALOI TALDEA GIPUZKOAKO TXAPELDUNORDE

Elgoibar Ikastolako Intxusarri eskubaloi taldea Gipuzkoako txapelaldunorde sailkatu zen joan zen asteburuan. Denboraldian zehar maila ona erakutsi dute, eta azken partidaren tantu baten aldearekin galdu zuten Usurbilen kontra. Zorionak neskei eta Cesar Arriola entrenatzaileari, gurasoen partez.

## KARTUTXO ERABILIEN BILKETA PILARREN



Pilar Ikastetxeok 2. postuan sailkatu dira erabilitako tinta-kartutxo bilketaren Espainiako txapelketan. Ikasle eta irakasleen artean 5.000 kartutxo batu dituzte azarotik maiatzera bitartean. Datorren urterako bilketa hasi dute dagoeneko.

## Lan praktikak amaitu dira

Elgoibar BH Institutoko ikasleek amaitu dituzte titulazioa lortzeko lan praktikak. Aurten emaitza oso onak lortu dituzte, eta ikasleen %80k lan kontratua sinatu du: elektromekanikan %82k eta administrazioan %100ek.

## Igeriketa eguna

Sei eta hamalau urte bitarteko 180 umek hartu zuten parte joan zen zapatuan igeriketa egunean. Giro bikaina izan zen Olaizaga kiroldegian.



# 5urte

kalitateko egunkaria egiten



*Euskaldun guztiengana iristea da gure erronka*

Eskuratu **berria**



# uda'08

AIRE LIBREKO ZINEA

Elgoibar / 22:30 Foruen plaza



Elgoibarko Uda  
Kulturaleko Sareak